

PROPOSAMENAK

UNTZIÑO LAGUNTZAILE APARTA

0-6 URTE

Untxamak gutuna idatzi dio amama Untxiñeri, askaltzera gonbidatzeko. Untxiñok, amari lagundu nahi dionez, gutuna botatzeaz arduratu nahi du. Baina postontzirainoko bidea ez da batere erraza izango.

BADAUZKAT NIRE ZULOTXOAN...

0-6 URTE

Alaine Agirrek eta Irimarrak hitzak eta irudiak elkartu dituzte negua pasatzeko janaria biltzen ari den urtxintxaren istorioa kontatzeko. Ipuinean bada, ordea, etengabe presente dagoen beste protagonista bat ere. Bukaerara arte, baina, ez dugu jakingo nor den.

AZKEN OTSOA

6-8 URTE

Miloren herria beldurtuta dago, azken otso baten presentzia dela-eta. Ehiztari gaztea haren bila abiatuko da, soilik arku batez eta bere herrikideak babesteko borondate irmoaz armatuta. Hala ere, otsoaren atzetik joateak gerrak zein absurdoak diren ulertaraziko dio, etsaia geure buruaren isla hutsa baino ez delako maiz.

MIKE

12-16 URTE

Floyd teniseko izar gazte bat da. Txikia zenetik, errutina bakarra baino ez du ezagutu: entrenatzea, partidak jokatzera eta onena izaten saiatzea. Baina gauza arraro bat gertatzen ari da. Mutiko bat agertzen zaio, beste inork ikusten ez duena: Mike. Behin eta berriro agertzen zaio Floyd tenisean ari denean. Floydek zera argitu behar du: Mikek zer nahi duen eta zer esanahi ote duen horrek berarentzat, eta norantz ote doan bere bizi.

EL HIJO DEL PADRE

HELDUAK

GAUR EGUNGO LITERATURA

Nor da Diego Martin? Berak ere ez daki. Senarra, unibertsitateko irakasle agurgarria, aita .. Bere jatorriari, bere sustraiei uko eginez bere burua egin duen norbait. Eta, aldi berean, iraganetik, aitaren itzaletik, familiaren arteko aspaldiko liskarretik askatzeko gai ez den norbait.

MENDEKUAREN HAZIA

HELDUAK

EUSKAL LITERATURA

Andoni Isok bere andregaiak akabatu zuen Donostian, anker eta hotz, baina Ertzaintzak ezin izan zuen haren aurkako frogarik topatu. Handik urte batzuetara, berriz, beste emakume bat hil eta desagerrarazi duela dirudi. Leire Asiain Foruzaingoko inspektorea jo eta su saiatuko da, bere talde osoarekin, kasua argitzen eta Isoren akatsen bat harrapatzen.